



**FINANTZA-INBERTSIOEN
POLITIKEN BETETZE-MAILAREN
INGURUKO FINANTZA-
INBERTSIOEN BATZORDEAREN
TXOSTENA - 2025EKO EKITALDIA**

2026ko uztaila





Dokumentu hau irisgarritasun irizpideen arabera diseinatu da, eta euskarri digitalen bidez ikusteko dago pentsatuta batez ere.



MUTUALIA, Gizarte Segurantzarekin lankidetza duen 2. zk.ko Mutua

Henao kalea 26

48009 Bilbo

Telefona: 94 4252500 www.mutualia.eus

Edozein informazio osagarri behar izanez gero, helbide elektroniko honen bidez jar zaitezke harremanetan: dircom@mutualia.es

Mutualiako Finantza-inbertsioen politika Mutualiako Zuzendaritza Batzordeak onestu zuen 2020ko uztailaren 17ko saioan, eta haren lehen berrikuspenean, 2024ko maiatzaren 31n, aldatu zen.

Politika horren bidez, «Irabazi-asmorik gabeko erakundeek balore-merkatuan aldi baterako finantza-inbertsioak egiteari buruzko jokabide-kodea»ren (hemendik aurrera JK gisa azalduko da) 2.6 bigarren apartatuan ezarritakoa betetzen du. Kode hori, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren 2019ko otsailaren 20ko Erabakiaren bidez onartu, eta 2019ko martxoaren 5eko BOEn argitaratu zen, Balore Merkatuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Gainera, aipatutako Jokabide-kodeak haren Kodearen Jarraipenahirugarren apartatuan, irabazi-asmorik gabeko gobernu-organoek urteko txosten bat aurkezteko duten beharra ezartzen du, zeinaren barnean «MUTUALIA» dagoen, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko Mutua (hemendik aurrera Mutualia edo Entitate). Txosten horrek xehea eta argia izan behar du, eta xede izango du Jokabide-kode horren bigarren (2.) eta hirugarren (3.) apartatueto printzipioak eta gomendioak betetzea, Mutualiak bere bazkide eta publiko orokorraren esku jarriko dituenak, Entitatearen webgunean argitaratuko baititu.

Kode horren ondorioetarako igortzen da Jokabide-kodearen eta Mutualiako Finantza-Inbertsioen Politikaren jarraipen-txosten hau, 2025eko ekitaldian eginiko aldi baterako inbertsioei dagokiona. Txosten hori onestea proposatzen zaio Entitatearen Zuzendaritza Batzordeari 2026ko uztailaren 10eko saioan, Entitatearen webgunean argitaratu aurretik, Ohiko Batzar Nagusiak onetsi dezan 2026ko uztailaren 17an.

1 - Jokabide-kodearen bigarren apartatuko printzipioak eta gomendioak betetzea.

- 1.1 - Mutualiak giza bitartekoak eta bitarteko materialak ditu, bai eta finantzaketa-inbertsioen hautaketa eta kudeaketarako sistema bat ere, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateei aplikatzen zaion araudiak (1993/1995 EDk onestutako Elkarlan-erregelamenduaren 30. artikulua) baimentzen dituenak, zeinak eginiko inbertsioen kopurura eta haien izaerara egokitu diren eta haien proportzioan egin diren.

Finantza-inbertsioen kudeaketa «Finantza-inbertsioen Batzordea»k egingo du. Batzordea Entitateko hiru pertsonak (idazkari nagusiak, zerbitzu korporatiboaren zuzendariak eta ekonomiako eta finantzako zuzendaritzak) osatzen dute, eta, dituzten beharren arabera, noizbehinka elkartzen dira, gutxienez urtean hirutan.

- 1.2 - *Finantza-inbertsioen inguruan erabakitzen duten Entitateko pertsonak ezagutza teknikoak eta nahikoa esperientzia dituzte. Horrez gain, aholkularitza profesional egokia, alorraren inguruko gaitasun profesionalak eta independentzia ere badute, eta Mutualiarekin egon daitekeen interes-gatazkak ez die eragiten ez merkataritza-enpresa aholkulariari, ez haren langileei.*
- 1.3 - *Mutualiak barne-auditoriaren eremu bat du, bere langile kualifikatuak dituena, eta eremu horren funtzioen artean dago Entitatearen arrisku esanguratsuei lotutako finantza-informazioa eta barne-kontrolako sistemak ezagutu eta berrikustea, zeinak barne hartzen duen barne-kontrola inbertsioen politika betetzen dela egiaztatzeko, eta Entitatearen Zuzendaritza Batzordearen Auditoretza Batzordearen mendekotasun organiko eta funtzionala du.*

1.4 - Mutualiaren finantza-inbertsioen politika haren Zuzendaritza Batzordeak onestu zuen, eta politika horrek JKren 2.6 artikulua bigarren apartatuan ezarritakoari erantzuten dio.

Politika hori arautzen duten printzipio guztiak zabaldu ditugu egindako finantza-inbertsio guztietara, eta, horretarako, honako adierazle hauek hartu ditugu kontuan:

- Berehalako likidezia, epe laburreko likidezia eta likidezia orokorra
- Zorpetzea
- Kutxa-fluxua
- Segurtasuna
- Errentagarritasuna
- Dibertsifikazioa
- Eragiketa espekulatiboen kopurua

Jarraian, finantza-adierazlerik esanguratsuenak laburtuko dira, eta horien zati bat modu xeheagoan jasota ere agertzen da Entitatearen urteko kontuen S040 eta S098 ereduetan:

ADIERAZLEAK	
GIZARTE SEGURANTZAREN	Mutualia
KUDEAKETA	
EPE LABURREKO LIKIDEZIA	1,4688
GUTXIENeko SEGURTASUNA	A
ERRENTAGARRITASUNA (diruzaintzako guztizkoa)	1,41%
ERAGIKETA ESPEKULATIBOEN KOP	NINGUNA
ONDARE HISTORIKOAREN KUDEAKETA	
EPE LABURREKO LIKIDEZIA	17,7725
GUTXIENeko SERGURTASUNA	A+
ERRENTAGARRITASUNA (Altxortegi totala)	% 1,93
ERAGIKETA ESPEKULATIBOEN KOPURUA	BAT ERE EZ

Aurten, 2025. urtean, aurreko bi ekitaldietan bezala, Mutualiak ez du betetzen elkarlanean aritzeko erregelamenduaren 30. artikulua, erreserbak gauzatzeari buruzkoa: «...mutuek erreserben ehuneko 80ren baliokidea den aktiboko zenbatekoa izan beharko dute une oro ekitaldi ekonomikoan, motaren bateko kreditu-arriskua duten aktiboetan gauzatuta». Ez betetzearen arrazoia da baliabide likido guztien eta eskudiru finantzarioen batura ez dela aski saldoa estaltzeko (69.870.072,03). Hala, defizitaren zenbatekoa, 2025eko abenduaren 31n, 10.610.540,14 € da.

2 - Jokabide-kodearen hirugarren apartatuko printzipioak eta gomendioak betetzea.

«FINANTZA-INBERTSIOEN POLITEKEN BETETZE-MAILAREN INGURUKO FINANTZA-INBERTSIOEN BATZORDEAREN TXOSTENA, 2025EKO EKITALDIA» txostena igortzeak xede hori du, eta Zuzendaritza Batzordeak onestu beharko du 2026ko uztailaren 10eko saioan, gero Entitatearen webgunean argitaratu eta Ohiko Batzar Nagusiak onesteko 2026ko uztailaren 17an

Bilbon, 2026ko uztailaren 10ean.

Finantza-inbertsioen Batzordea

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN 2026/07/10EKO AKORDIOA

Akordioa.- «Zuzendaritza Batzordeak aho batez ONESTEN du 2025eko ekitaldiko finantza-inbertsioen politiken betetze-mailaren inguruko FINANTZA-INBERTSIOEN BATZORDEAREN TXOSTENA, gaurko egunez igorri dena eta akta honen I. eranskina modura agertzen dena, eta Ohiko Batzar Nagusiek onestu beharko dute 2026ko uztailaren 17an. Horren aurretik, ordea, Entitatearen webgunean argitara emango da, behin txosten hau horri txertatzen zaionean».

